

## MAHAI SEKTORIALA

### 1. 2023/2024 Lekualdatze Lehiaketa (autonomikoa)

Data: Urriaren amaieran.

Deialdian aldaketak:

**-Lanbide Heziketako kidegoetan aldaketak:** bai desagertu beharreko kidegokoak baita beste guztiek bakante berberetara parte hartuko dute. Antzinasunaren balorazioan: espezialitate bateko esperientzia guztia baloratuko da, edozein kidegokoa delarik ere.

**-Atzerriko hizkuntzan profildunak:** langile horiek nahitaez parte hartu beharko dute Nafarroako irakasle "kidego" berezi horretan, eta ezin izango dute Estatuko lekualdatzeetan parte hartu.

PLE duten lanpostuetan, profil hori duten funtzionarioek eta atzerriko hizkuntzako C1 duten Estatuko kidegoetako funtzionarioek baino ezin dute parte hartu.

PLEdun langileek ezin dute atzerriko hizkuntzako profilik gabeko plazarik lortu.

Merezimendu gisa baloratuko dira karrerako funtzionario, praktiketako funtzionario eta interino gisa egindako zerbitzuak.

### 2. Birjarpen-erreposizio oposizio deialdia.

Deialdi berria aterako da. Azterketa 2024an. Ez da aurreikusten deialdi gehiagorik egotea.

Espezialitate berera hainbat hizkuntzatan aurkezteko aukera egongo da.

Egonkortzekoa eta erreposiziokoa data desberdinetan izango dira.

Erreposizio eta egonkortze oposizioek zerrenda berriak sortuko dituzte.

Behin-behineko baremora [esteka](#).

STEILASek informazio saioak antolatuko ditu euskaraz eta gaztelaniaz deialdia argitaratzen denean.

**3. Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Ikuskaritzako zerbitzuan behin-behineko ikuskatzaileen** aldi baterako lanpostuak betetzeko bi hautagai-zerrenda (gaztelania-euskara) eratzeko **deialdia** argitaratuko da.

### 4. Beste informazio batzuk:

-Erreniegako hirugarren taldeaz galdetu da eta ez da erantzunik jaso.

-IKTen ardura duten irakasleentzako teknologia berrien arloko prestakuntzari buruz galdetu da, eta ez da erantzunik jaso.

-Departamentuak ez du berme mekanismorik ezartzen norberaren aferetarako egunak hartzeko eskubidea bete dadin.

**Borrokan jarraituko dugu.**